

## GIZA ESKUBIDEAK, ERA OROKORREAN ETA HIZKUNTZAREN ARLOAN

*Juan San Martin,  
euskaltzaina*

Nazio Batuen Batzar Nagusiak (ONU) 1948an aurkeztu zuen Giza Eskubideen Adirazapen Unibertsala. Bere 2. artikuluan, orokorki begiraturik honako hau zioen: “1. Gizaki orori dagozkio Adierazpen honetan aldarrikatutako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereiziko arraza, larru-kolore, sexua, hizkuntza, erlijioa, politika edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik. 2. Ez zaio begiratuko gainera, pertsona zein herrialde edo lurraldetako egoerari, nahiz eta herri hori burujabea izan, besteren zainpeko lurraldea, autonomiarik gabea edo nola-halako burujabetasun-mugak dituena”.

Eta 26. artikulua hiru guturrik zatituta dioenez: “Gurasoen lehentasunezko eskubidea izango dute seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko”.

Hor oinarriturik, gogoan hartzekoa iruditzen zait 1953an Unesco erakundeak argitaratu eman zuen *L'emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement* deritzan liburuxka. Frankismo garaia zen eta Espainian ez zen zabaldu liburuxka hori; baina, bere edukiaren berri jakin nahi duenak, Azkue Bibliotekan aurkituko du aipatzen dudana liburuxka hori. Horien ondorioz, aditzera eman beharra dut, giza eskubideen alderako orokortasuna.

Baina bereziki, hizkuntzen alde, zeren oso erabilgarria den liburu bat bada, 1981ean Unescok argitaratua eta geroztik hamasei hizkuntzetara itzulia, euskaraz ere 1999an Bilbon Bakeaz / Ediciones Unesco argitaletxeak emana den Leah Levin andere idazle ingelesak prestatutako *Giza eskubideak: galdereantzunak* deritzana. Hizkuntzen arloan egin diren zenbait akordio ere jasotzen ditu eta, bake biderako, edonorentzat liburu gomendagarria iruditzen zait.

Euskaltzaindiaren eskariz eta alde horietatik begiraturik aurkeztu nuen: “Hizkuntza, hiztunen giza eskubideen arabera” zeritzan txostena (Ikus *Euskerria*, 44, 1999, 2. alea, 979-983. orrialdeetan). Bertan jasotzen ditut, 980. orrialdean, Hezkuntza eta Kultur Ministeritzak 1976an dekretuz Euskaltzaindia onartzeaz, erregearen sarrerako hitzak. Eta, nire ustez, Estatuko buru denaren hitz

horiekin baliatu beharra dugu. Euskaltzaindiaren sorkundeaz bere aitona 1918. urtean Oñatin esan zuena gogotan harturik, non zioen: “Desde entonces la Academia viene laborando ininterrumpidamente en los fines para los que fue creada, fomentando la unidad de una lengua que hablan muchos españoles y que es un elemento importante de la cultura y del acervo nacional. Por ello nada mejor para la tutela e investigación de la lengua vasca que el reconocimiento por el Estado de la labor de esta Academia que Su Majestad el Rey Juan Carlos I quiere hacer patente, de acuerdo con las memorables palabras de su egregio abuelo”.

Baina, gogoan izanik aurtengo urtea, 2001garrena, Europako Batasun Bartzordeak “Hizkuntzen Urtetzat” izendatu duelako iaz argitaratu nuen *Giza eskubideen inguruan / En torno a los derechos humanos* zeritzan liburua, gaia orotariko ikusmenez aurkeztuz, eta gaiaren barnean bereziki hizkuntzaren arloari toki zabala eskainiz. Zeren, gure egoera honetan, hizkuntzarekikoa baitugu gunerik larriena edo kezagarriena.

Liburu horren lehen kapituluan, eredugarritzat, Euskal Herritik giza eskubideen alderako emaitzak orokorki eskaintzen nituen, Aita Frantzisko Vitoriakoagandik hasi eta Martin Azpilkueta “Doctor Navarro”, Joanes Etxeberri Ziburukoa, Pedro Dagerre “Axular” eta beste z gainera Ilustrazio garaiko Aita Larramendi, Xabier Munibe bere lagun zituen Azkoitiko “zalduntxoak” deitu izan zirenak eta beste, Amurrioko Jesus Galindez eta Baionako René Cassin zirenekin bukatuz.

Desberdin pentsatzen dutenengandik ere beti ikasten da zerbait. Eta gure Herritik hilketat eta indarkeriz ari den ETA taldeak ere badu gure lehengo gizon eredugarri haieganetik zer ikasirik. Zeren, hemen, inori kalterik egin gabe, guztiok gara beharrezkoak. Horregatik, eraikitzaileak behar ditugu eta ez hondatzaileak. Elkar joka ibiltzea geure Herriaren kaltegarri da eta bide horretatik ez goaz inora. Lehen lehenik, beste era batera pentsatzen dutenen bizitza ere errespetatzea baita garrantzizkoena. Baketan lana egin nahi baldin badugu, indarkerizko ekintzen aurrean isilik egoterik ez dugu. Bestela mundu guztiaren aurrean geure Euskal Herriari kalde egiten ari gara.

Hizkuntzak herriaren sustraietatikoak direnez, aldarrikatu beharra dugu, gure antzinatiko cuskara hor zela oraingo talde politiko guztiak sortu baino lehenagotik. Horregatik, esan beharrezkoa iruditzen zait, demokraziaren izenean, gaur egungo politikarien artean gauzak ez dihoaztela bide zuzenagotik, gorrotogarrizko demagojia gehiegi nabari baita, zeren ez baitituzte gauzak zintzo eta argitasunez agertzen. Dirudienez, kultur arloan behar bezalako aholkulariez baliatzen ez dakitelako edo nahi ez dutelako. Guztiok dugu ideien artean elkarri hurbilduz ahalegintzea eta errespetatuz ibili beharra. Herriari begira, ahal den neurrian desberdintasunak baretuz eta elkarrenganako hurbiltasunera abiatuz.

Egoera horren inguruan Euskaltzaindiak badu bere egitekorik, polifike-riak alde batera utziz, bere sorreratik datorkion Arautegiak eskaintzen dizkion ekintzak kontuan hartuz. Lehen artikulua zenbait zati begiratu besterik ez dugu, adibidez: e) Euskararen erabilera aintzinatzea. f) Hizkuntzaren eskubi-deak zaintzea. g) Hizkuntza gizarte maila guztietan gai bihurtzeko, lan egitea eta abar.

Oroi Euskaltzaindia, euskararen erakunde bezala, lau probintzietako Di-putazioek onarturik sortua zela. Nafarroako Foru Diputazioak bere onspen ofiziala eman zion 1919ko irailaren 3an, Eta erakundeak urre eztaietako bile-ra bereziak antolatu zituenean, hiriburuetan antolatu zituen batzarrak eta ho-rien artean oroigarri zaigu 1968ko abenduaren 4an Nafarroako Diputazioan an-tolatu zen ospakuntza hura, Espainiako Akademien ordezkariak eta beste zenbait erakundetakoak ere han zirelarik. (Hortaz, ikus eta irakur *Euskera* agerkariaren, XVI. zenbakia, 1971. urtekoa, bere 5-26 eta 199-203 orrialdee-tan).

Euskaltzaindia, esan beharra dut, politikaren gainetik era askotariko per-sonenek osatzen dugula. Eta bere Arautegiaren arabera, eginkizun nagusia, be-reziki *Iker* eta *Jagon* sailetan oinarritzen dela, lau Diputazioek onartu bezala. Horren arabera, Erakundearekiko eginkizuna, nire ustez, aipatu dudan “Hiz-kuntza, hiztunen giza eskubideen arabera” zeritzan txosten hartan azaldu nuen. Uste dut, aski argi eta garbi agertu nuela, bai gure Erakundearen Arautegia-gatik eta baita ONUk Giza Eskubideen Adierazpen Unibertzelean agertu zue-nagatik ere. Gai honetaz askozaz zabalago eta ageri gehiago emanaz idatzi nuen aipatu dudan *Giza eskubideen inguruan - En torno a los derechos hu-manos* (2000) liburu horretan. Eta gaiok zehatzago jakin nahi dituenak berta-ra jo beharra du.

Ezertan errurik baldin badago, bakoitzak har bedi errua bere lepora, es-painiar sentitzen direnek ere jakin beharrezkoa dutenez, euskara dela Espai-niako hizkuntzarik zaharrena eta aurka ari direnak, sineskaitza badirudi ere, bertako jatorrizko hizkuntza naturala eta zaharrena denarena aurka ari direla.

Inork zalantzarik izan ez dezan, oroi Antonio Tovar hizkuntzalari eta ira-kasle zenak aski argi eta garbi agertu zigula gure euskara, esanez: “Es una len-gua prehistórica, una lengua profundamente arraigada en el suelo, y es la úni-ca que se ha conservado al oeste de Eurasia desde la conquista de nuestro continente por los indoeuropeos”. Eta egile berak *La lucha de lenguas en la Península Ibérica* deritzan liburuan beste honako hau gehitu zigun: “En un mundo moderno sólo los medios modernos (escuela y grados superiores de educación, radio y televisión, etc.) pueden asegurar la conservación de la len-gua”.

Baina, bere aurretik, Ramón Menéndez Pidal, Real Academia Española-ren buru zenak, Eusko Ikaskuntzaren eskariz 1921.urtean Bilbon eskaini zuen hitzaldi hartan beste honako aitorten hau egin zuen: “Tenéis la fortuna de que

vuestro pueblo sea depositario de la reliquia más venerable de la antigüedad hispana. Otras tendrán más valor artístico, serán más admiradas y codiciadas universalmente, pero no hay otra que tenga la importancia de esta lengua, sin cuyo estudio profundo jamás podrán ser revelados del todo los fundamentos y los primitivos derroteros de la civilización peninsular, ni podrá ésta ser esencialmente comprendida”.

Hizkuntzak, berez, herrien izate naturaletik sortuak baitira. Horregatik, guztiak dira errespetagarriak, bereziki geroztik sortuak diren politika taldeen gainetik jarriz. Europako Batasunak ere horrela aitortzen baitu.

Julio Caro Barojaren *Algunos mitos españoles y otros ensayos* (1944) saio liburuko gai gehienak Euskal Herriari buruzkoak dira, non aurki genitzakeen Europako zenbaiten kidetasuna, bereziki Iparraldekoena. Bestalde, gogoan hartzekoak ditugu R. M. Azkue eta J. M. Barandiaranen bilketa lanak. Gai honetaz, neronek Julene Azpeitiaren *Amandriaren altzoan* (1961) liburuari egin nion hitzaurrean herri-ipuinei buruz esan nuena berretsi nezake: “herri-ipuinak dira literaturaren aurrengo kimuak, noski, haiexek izan direlako kulturadun hizkuntzen literatura oinarri. Sarri, ipuinak aski dira herri baten psikologiaren bereizkuntza egiteko. Beren aberastasunetik neurtu daiteke herri-gogoa. Harriargaria da benetan, gure herriak ahozko literatura horren eberatsa izanik, idatzizkoan hain txiroa izan beharra. Hala ere, esan nezake ez dela askok uste duten bezain txiroa. Hortarako, kontutan hartzekoa da oraintxu Patxi Salaberri Muñoak argitara eman duen “Kontrarreforma garaiko Lapurtar literaturaz”, aurten *Karmel* aldizkarian ikerketaz eskaini digun saioa (Ikus, 2001. honetako *Karmel*, 233. zenbakiaren 3-30. orrialdeetan).

Baina, esan bezala, herri literaturan era guztietako ipuinen jabe gara, eta bertan ditugu lehenagoko sinesmen, kondaira eta ohituren argitasunak. Norberaren herria ezagutu ahal izateko, zer hoberik ahoz aho etorri zaigun jatorrizko literatura baino?

Gaur, horri begira badugu zer aztertu. Adibidez, Eurogutuna, Europako hizkuntza gutxien aldeko agiria, Europako Kontseiluak lege proposamenez aurkeztu zuen 1992ko otsailean. Une hartan Eusko Legebiltzarreko Ararteko nintzen eta European Ombudsman Institute erakundeak hizkuntza bat baino gehiago mintzatzen ziren herrialdeetako arartekoak deitu zituen Bonn-eko Legebiltzarrean elkarturik Eurogutunaren berria jaso eta gure iritziak emateko. Han agertu ginen guztiok ahobatez oniritzia eman genion, hizkuntza bat baino gehiago mintzatzen ziren herrialdeetarako oso beharrezkoa zeritzaigunez.

Eurogutun horri Frantziak betoa jarri zion, esanez bere Konstituzioaren bigarren artikuluan frantsesa baizik onartzen ez zuelako. Baina, urte batzuk geroago onartu zuen. Hala ere, bigarren artikulua hori aldatu ezik, Frantziako Estatuaren barnean ez du behar bezalako ahalmenik.

Baina Espainiako Konstituzioak ere bere hirugarren artikulua aldatu behar luke, zeren autonomien esku uzten baitu hizkuntzen ofizialtasuna, eta era horretara, giza eskubide zuzonaren beharrean, elkar aurrez aurre jartzen baitakitu. Horren xehetasunak eman nituen *Giza eskubideen inguruan / En torno a los derechos humanos* (2000) liburuan.

Hala ere, gogoratu beharrezkoa iruditzen zait ETAkoek hain era txarrean hil zuten Ernest Lluch zenak Donostiako *El Diario Vasco* egunkarian 2000. urteko martxoaren 25ean hain zentzuz argitara eman zuen “Sin ser nacionalista” izenburuz eskaini zuen artikulua hartan zioena: “Ahora, afortunada y finalmente, Francia ha firmado la Carta Europea de los Derechos de las Lenguas Minoritarias. Una firma que tiene aspectos que rozan la inconstitucionalidad a causa del exclusivismo lingüístico francés en la Constitución. Pese a estas dificultades el actual gobierno ha ofrecido a las escuelas que enseñan vascuence, catalán o bretón en Francia su integración en la red de escuelas públicas con el prestigio que éstas tienen en este país. Lamentablemente las condiciones económicas ofrecidas son insostenibles. Actuar culturalmente, para que esta línea se ensanche, debe ser la escogida como relativamente más eficaz”.

Baina hemen, Nafarroan gaudenez, aipatu beharrezkoa iruditzen zait egungo Nafar Gobernuak ez diola jaramonik egiten, ez erregeri eta ezta ere beraien *Lingua Navarrorum* jatorrari. Itsuak ote daude José Goñi Gaztambidek argitaratutako *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona, 829-1243* (1997) liburuaren 269. orrialdean latinez datorren hartaz? Ba, argi eta garbi agertzen da honako hau:

“Erit autem talis differentia inter Orti Lehoarriz et Açeari Umea et successores eorum, quod Orti Lehoarriz faciet ut lingua Nauarrorum dicatur **unaimaizter** et Açezari Umea faciet **buruçaguí**, quem voluerit”.

Lekukoen deituz gainera hor ditugu garbi asko beraien ogibidezko ofizioak latinez *Lingua Navarrorum* zeritzan euskaraz. Eta agiri horren ondotik ulertu ezin duenak, behar bezala jakiteko, euskaraz ikas edo guttienez dakienaren bidez jabetu zer esan nahi duen.

Joseph de Moret nafar historiagileak ere argi utzi zigun bere *Annales del Reyno de Navarra* (1764) zeritzan hartan, lehen liburukiko I. kapituluaren III. atalean, 4-5. orrialdeetan irakur genezakeenez honako hau: “Traen tambien por argumento su Lengua nativa Vasconica, que con ninguna otra de las Gentes, que en las Españas han entrado en numero grande, y que pudiesse imutar el Idioma natural, tiene comercio, ò afinidad alguna. La qual en lo antiguo fue comun de todos los Pueblos Vascones, como el mismo nombre de Vascuence lo dice: y el Rey Don Sancho el Sabio la llamó Lengua de los Navarros”.

Horiek ezaguturik, harrigarria iruditzen zaigu Nafarroan euskarari eragozpenak jartzea. Hori, beraien jatorrien aurka egotea baita. Esate baterako, XVI. mendean oraindik Erriberako mugetaraino iristen baitzen *Lingua Navarrorum* zeritzan euskara. Ikus besterik ez dugu Manuel Lakuona zenak Iruñeko katedralaren artxibategian aurkitu eta argitara eman zuen agiri hura: “El Euskera en Navarra a fines del s. XVI”, *RIEV*, 1933, 365-374. orrialdeetan.

Eta euskarak geroztik ezagutu izan dituen eragozpenak ekarri zizkigun atzerapen handiak. Eragozpen horien berri eman nuen aipaturiko *Giza eskubi-deen inguruan* liburuko 73-83. orrialdeetan. Baina, hala eta guztiz ere, Nafarroako herri euskaldunek, Nafar Gobernuari aurre egin diote, beraien hizkuntzak bizirik jarrai dezan.

Ezin dugu ukatu, interesgarria zaigula gaztelania bezalako hizkuntza hedatuagoa ezagutzea. Ez goaz horren aurka, baina hain geurea dugun euskara utzi gabe, noski. Gainera, kontuan izan, haurtzarotik bi hizkuntzen jabe denak hirugarren edo laugarren bat errazago ikasten duela. Aldi berean, besteak ikasteaz irekiagoak egiten gaitu mundu zabalera begira.

Guzi hori kontuan izanik, ulerkaitza iruditzen zait Nafarroako Gobernua aurrez aurre aurka jartzea, bai *Lingua Navarrorum* zeritzanari, ONU, Unesco eta Espainiako Erregeak Euskaltzaindia onartzeaz esan zuenarenari ere, batez ere Europako Hizkuntzen urte honetan.

Zeren, 2001. urte hau Europako Batasunak bertako hizkuntzen urtetzat izendatua duenez, guk Euskaltzaindiaren Arautegiari jaramon eginaz eta giza eskubideei dagokien legez, ezin ukapenik eman Europak bere jatortasunekoa duen gure euskara honi.